

Jarraian, EKINTZAILEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA SUSTAPENERAKO ELKARTEAK – IFZ: G-75077503, aurrerantzean Ekingune- antolatutako “ON EKIN” izeneko ekitaldian parte hartzea arautzen duten oinarriak azalduko dira.

0.- AURKEZPENA

Ekintzaileen arteko lankidetzak eta sustapenerako Ekingune elkarteak “ON EKIN” ekitaldi/lehiaketa antolatu du.

1.- NORI ZUZENDUA:

Negozio ideia bat duten ekintzaile eta enpresei, zeinei diru-ekarpen txiki batek martxan jartzen lagunduko dien.

2.- PROPOSAMENEN EDUKIA:

Proposamenek gutxienez ondorengoak azaldu beharko dituzte, txantiloian adierazten den bezala:

- a) Ideiaren/proiektuaren izenburua.
- b) Talde sustatzailearen edo ekintzailearen aurkezpena (mekanografiatutako orri 1 gehienez).
- c) Ideia ahalik eta argien eta ahalik eta zehaztasun gehienez azalduko duen txostena (mekanografiatutako 4 orri gehienez).
- d) Zergatik uste duzu dela zure ideia berritzailea? Zer ekarpen egiten dio zure egungo negozioari (negoziarik martxan baldin baduzu)? (mekanografiatutako orri 1 gehienez).
- e) Eranskina: Erantsi dokumentu identifikatzaileak (NAN, IFZ, EIGZ alta -IAE-, edo beharrezkoak diren gainerako dokumentuak).
- f) Orri bateko Powerpoint-a, non proiektuaren arlo garrantzitsuenak laburbilduko diren, honi atxikitako formatuan.
- g) Lehiaketan parte hartzeko, afarira joateko 30€-ko intsuldaketaren ordainagiria gehitu beharko zaie beste dokumentuei.

3.- AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

Dokumentuak 2018ko uztailaren 6aren aurretik, ostirala, aurkeztu behar dira.

Ingurumen politikak direla eta, proposamenak e-postaz bakarrik aurkeztuko dira hurrengo helbidera: ekingune@ekingune.com.

Proposamenak bidaltzean, idatzi gaian: “**On Ekin Hautagaitza**”.

Aurkezpena osoa ez dagoelako edo ongi ez dagoelako zuzenketaren bat egin behar izanez gero, beste 2 egun gehiago izango dituzu zuzenketa egin ahal izateko.

4.- EKITALDIA

Ondoz ondoko bi fasetan bana daiteke “**On Ekin**” ekitaldia: (1) Ideia/proiektuen aurkezpena eta (2) afaria eta proiektu irabazlearen hautaketa.

Lehenengo fasean, aurkeztutako proiektu guztien artetik batzuk hautatuko ditu Ekingunek eskualdeko ekintzailatza munduko adituz osatutako epaimahai inpartzial batek. Bozketa horretan 6 proiektu aukeratuko dira, zeinak guztion aurrean aurkeztuko diren On Ekin afarian, nahitaez, saria jaso ahal izateko. 6 finalista horiek 2018ko uztailaren 12ko afarian (osteguna) emango dira ezagutzera, aurkeztutako proiektu guztien azalpen laburraren ondoren.

Bigarren fasean, 2018ko uztailaren 12an, On Ekin afarian, proiektu irabazlea modu demokratikoan aukeratuko da, hau da, afarian dauden guztien bozketa bidez. Horretarako, epaimahaiak aukeratutako 6 parte-hartzaileek euren proiektua aurkeztu beharko dute 3 minututan gehienez.

Afarira hurbildutako guztiek bozkatuko dute, proiektu horien azalpen publikoaren ondoren, zein den nahiago dutena. Boto gehien jasotzen duena izango da irabazlea.

Berdinketa gertatuz gero, antolatzaileek bozketa errepikatzea eskatu ahal izango dute, ekitaldiaren antolatzaileek adostutako irabazle kopuruak bezainbeste proiektu hautatu arte.

Ez da onartuko legea urra dezaketen edo inoren zein talderen baten eskubideak urra ditzaketen ideiarik edo proiekturik onartuko –aurkeztean, gauzatzean edo garatzeko orduan–; ezta sexua, adina, sinesmena, ideologia edo bestelako arrazoiren batean oinarritutako indarkeria edo bazterketak susta ditzakeen proiekturik ere.

Edonork har dezake parte afarian, berdin dio aurkeztutako proiektuekin zerikusia eduki ala ez. Afarira etorri nahi duen orok bere asmo hori jakinarazi behar du ekingune@ekingune.com e-postaren edo 943 507 863 / 688 734 292 zenbakien bitartez, eta 35€ ordaindu beharko dituzte ES94 2100 1883 9502 0021 0124 kontu-zenbakian 2018ko uztailaren 6a baino lehen. 60 pertsona onartuko dira gehienez.

Ekingunek ekitaldia bertan behera uzteko eskubidea du behar adina hautagai aurkeztuko ez balira. Ekingunek izendatutako epaimahaiak saria banatu gabe uzteko eskubidea du.

5.- BETEKIZUNAK:

a) Adinez nagusi izatea.

b) Datu pertsonal guztiak eta egiazkoak ematea.

c) Ekitaldi/Lehiaketaren terminoak eta baldintzak onartzea.

d) Saria jaso ahal izateko, ideia 2019ko azaroaren 1 baino lehen beharko du martxan. Hori egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira (JEGZ alta, autonomoen alta, fakturak, nominak, etab.).

e) Lehenengo hautespenean hautatutako proiektuak ideiarene sustatzaileak aurkeztu beharko ditu afariaren egunean bertara hurbildu diren guztien aurrean. Horretarako, 3 minutu izango dituzte gehienez, dokumentuekin batera aurkeztuko duen powerpoint diapositiba laguntza gisa baliatuta.

f) Proiektuak jatorrizkoak izan behar dute, eta argitaratu gabeak. Euskaraz edo gaztelaniaz idatziak.

g)Proiektua martxan dagoen enpresa batek aurkeztuko balu, baldintza hauek bete behar ditu: jarduera ekonomikoa 2016ko urtarrilaren 1 ondoren hasia eta egoitza soziala Debarrenan edukitzea (Mallabia, Ermua, Eibar, Elgoibar, Soraluze, Mendaro, Deba eta Mutriku). Hautagaiak jarduera oraindik formalizatu ez badu ekitaldi/lehiaketaren unean, jardura Debarrenako eskualdean (Mallabia, Ermua, Eibar, Elgoibar, Soraluze, Mendaro, Deba eta Mutriku) da ezinbesteko baldintza.

Barne-ekintzailatzako proiektuen kasuan, antzintasun handiagoa duten enpresek ere hartu ahal izango dute parte, beti ere proiektua oinarri hauetan aurreikusitako baldintzen arabera enpresa berri gisa planteatzen bada.

6.- SARIA:

Afarira etorriko den bakoitzak 35€-ko ekarpena egingo du: horietatik % 43 inguru azken saria finantzatzeko erabiliko da, eta beste % 57 afaria eta ekitaldia ordaintzeko.

1. saria: Sariaren zenbatekoa 2.000 €-koa izango da, eta urte batez Ekinguneko bazkide doan izatea, CAIXABANKen eskutik. Gainera, Ekinguneko webgunean publizitaterako tartea izango dute urte batez, proiektu irabazlearen webgunerako estekarekin eta tokiko aldizkarian erreportajea bere negozioa sustatzeko.

2. saria: 1.000€-ko saria eta Ekinguneko bazkidea doan urte batez izateko aukera, Ekinguneraren eskutik.

3. saria: 300€-ko saria, Seguros Axako Mariella Saitzen eskutik, eta 200€ gauzaz, EHINGUNERen enpresek eskaintzen dituzten zerbitzuetan erabiltzeko, eta Ekinguneko bazkidea urte batez doan izateko aukera.

Gainerako finalistak Ekinguneraren webgunean aipamen berezia izango dute.

7.- EPAIMAHAI

Debarrenako (Mallabia, Ermua, Eibar, Elgoibar, Soraluze, Mendaro, Deba y Mutriku), enpresa, erakunde eta hezkuntza arloetako pertsona garrantzitsuek osatuko dute epaimahaia. Honek, proiektuen kalitatea eta oinarriak betetzen dituen balioztatuko duen.

Epaimahaiak hurrengo irizpideak hartuko ditu kontuan:

- Ideiaren/Proiektuaren bideragarritasuna. (% 50)
- Berrikuntza maila.(% 30)
- Sustatzaileen taldea (% 20)

8.- JABETZA INTELEKTUALA

Deialdi honetan parte hartuko duten guztiek berresten dute badutela aurkeztutako proposamena abian jartzeko titulua eta legitimazioa, eta ez dutela urratuko jabetza intelektualeko eskubiderik, ezta edukien gaineko Espainiako zein atzerriko gainerako eskubiderik ere. Antolatzaileek proiektu horren erabileraren inguruan erantzukizunik ez duela berretsiko du. Parte-hartzaileek euren proposamenetan bildutako edukien erabilerak,

erreproduzioak, hedapenak edo banaketak eragin ditzaketen kalteen erantzukizun osoa euren gain hartuko dute.

9.- DATU PERTSONALEN BABESA

Datu pertsonalen babeserako araudia beteaz, parte hartzaileak baimena ematen du emandako datu pertsonalak Ekingune Ekintzaileen Elkartearen erantzukizuneko Jarduerak izeneko fitxategi batean gordetzeko, zeinaren IFZ: G-75077503 eta egoitza soziala Azitain industrialdea 3 K, 2. solairua Eibargunea, 20600 Eibar (Gipuzkoa) den.

Tratamendu honen helburua erakundeak antolatzen dituen jardueren kontrola eta kudeaketa da, eta baita haiek sustatu eta haietan parte hartzea eta haiei erantzutea ere. Datu horiek "On Ekin" ekitaldia / lehiaketa bukatu eta sariak banatu arte gordeko dira.

Gainera, parte-hartzaileak baimena ematen du Ekinguneren partnerrak edo laguntzaileak direnei datu horiek lagatzeko. Lagatze horren helburua, dagokienean, parte-hartzaileei sariak gauzatzea da, eta datuak lagatzen diren une horretatik aurrera haien tratamenduaren erantzuleak Ekinguneren partnerrak edo babesleak izango dira, beraz, Ekingune ez da erantzule izango baimendutako empresa horiek egindako tratamendu horren legez kanpoko erabilera edo erabilera okerren aurrean.

Aldi berean, parte-hartzaileek onartzen dute euren nortasuna **Ekinguneren** web orrian argitaratzeko berretsitako parte-hartzaile gisa.

Edozein kasutan ere, interesdunak emandako baimena atzera bota edo ukatu egin ahal izango du, eta datuak atzitze, zuzentze edo ezerezteko eskubidea erabili ahal izango du, eta baita haren tratamendua mugatu edo tratamenduaren aurka egin, eta datuak eramateko eskubidea ere. Horiek eskatzeko, idatziz adierazi behar da Azitain industrialdea 3 K, 2. solairua Eibargunea, 20600 Eibar (Gipuzkoa) helbidea, edo posta elektronikoz ekingune@ekingune.com helbidera.

Halaber, erreklamazioa ere aurkeztu ahal izango da Datuen Babeserako Espainiako Agentzian.

9.- EHINGUNEREN ESKUBIDEEN ONARPENA

Hurrengo konpromisoak hartzen ditu proiektu irabazlearen sustatzaileak:

- **Ekinguneri** baimena ematea bere izena, ikur bereizlea, logotipoak eta bere proiektua sustapen-baliabide eta komunikabideetan erabiltzeko, **Ekingunek** antolatutako ekitaldien ondorioz sortutako proiektuen adibide gisa.

- Proiektua abiarazi dela jakinaraztea **Ekinguneri**, eta baita bere kapital sozialean edo negozioaren garapenean eragina duten eragiketa garrantzitsuen berri ematea ere, proiektuaren jarraipena errazte aldera. **Ekinguneren** konpromisoa jakitera eman ez den edo proiektuaren sustatzaileak erregistro publikoetan jarri ez duen isileko informazioa isilean gordetzea da.

- Bere web orri nagusiko homean **Ekinguneren** logotipoa jartzea eta webgunera eramaten duen esteka. Logotipo hori partner edo kolaboratzaileen atalean jarriko da, edo webgunearen barruan bistara dagoen beste atal batean.

Proiektuaren liderrak arestian azaldutako baldintzak betetzen direla ziurtatuko du, beste bazkide batzuekin edo hirugarren batekin batera burutuko duenean ere.

10.- IRUDIEN ESKUBIDEAK

Proiektu irabazlearen sustatzaileak, bere izen eta ordezkari gisa, baimen argi eta banaria ematen dio Ekingune Ekintzaileen Elkarteari, IFZ: G-75077503, bere irudia eta datu pertsonalak tratatzeko (izena, abizenak, jatorria eta esperientzia profesional edota pertsonalaren xehetasunak):

☐ Baimena ematen dut:

☐ Nire irudia ateratzeko

☐ Irudi hori gero hurrengoan erabiltzeko:

☐ Webgunea

☐ Sare sozialak:

☐ Facebook

☐ Twitter

☐ Youtube

☐ aldizkarietan, argitalpenetan, erakusketetan edo entitate baimenduaren beste baliabideetan.

☐ Ez dut baimena ematen:

☐ Nire irudia ateratzeko

☐ Irudi hori gero hurrengoan erabiltzeko:

☐ Webgunea

☐ Sare sozialak:

☐ Facebook

☐ Twitter

☐ Youtube

☐ aldizkarietan, argitalpenetan, erakusketetan edo entitate baimenduaren beste baliabideetan.

Hori guztia 1982/1 Lege Organikoa beteaz, Ohorea, Intimitate Pertsonala eta Familiarena eta Norbere irudia babesteko Eskubidearen Babes Zibilekoa, Datu Pertsonalen Babesaren inguruko araudiak zehazten duenarekin lotuta, baimena ematen du emandako datu pertsonalak Ekingune Ekintzaileen Elkartearen erantzukizuneko irudiak izeneko fitxategian, zeinaren egoitza soziala Azitain industrialdea 3 K, 2. solairua Eibargunea, 20600 Eibar (Gipuzkoa) den. Helburua hainbat komunikabidetan argitaratzen diren irudiak kontrolatu eta kudeatzea da.

Datu horiek, argitaratzeko baimena dutenean, argitaratzen diren komunikabideetan sartzen den guztiaren esku egongo dira eta helburu historikoekin denbora zehaztugabea gordeko dira.

Edozein kasutan ere, interesdunak emandako baimena atzera bota edo ukatu egin ahal izango du, eta datuak atzitze, zuzentze edo ezerezteko eskubidea erabili ahal izango du, eta baita haren tratamendua mugatu edo tratamenduaren aurka egin, eta datuak eramateko eskubidea ere. Horiek eskatzeko, idatziz adierazi behar da Azitain industrialdea 3 K, 2. solairua Eibargunea, 20600 Eibar (Gipuzkoa) helbidea, edo posta elektronikoz ekingune@ekingune.com helbidera.

Halaber, erreklamazioa ere aurkeztu ahal izango da Datuen Babeserako Espainiako Agentzian.

Horrez gain, ekitaldi bakoitzeko parte-hartzaile bakoitzak, bere izenean eta bere burua ordezkatzen, baimena ematen dio Ekingune Ekintzaileen Elkarteari, IFZ: G-75077503 bere irudia eta datu pertsonalak (izena, abizena, jatorria eta esperientzia profesionaleko egota pertsonala):

☐ Baimena ematen dut:

☐ Nire irudia ateratzeko

☐ Irudi hori gero hurrengoan erabiltzeko:

☐ Webgunea

☐ Sare sozialak:

☐ Facebook

☐ Twitter

☐ Youtube

☐ aldizkarietan, argitalpenetan, erakusketetan edo entitate baimenduaren beste baliabideetan.

☐ Ez dut baimena ematen:

☐ Nire irudia ateratzeko

☐ Irudi hori gero hurrengoan erabiltzeko:

☐ Webgunea

☐ Sare sozialak:

☐ Facebook

☐ Twitter

☐ Youtube

☐ aldizkarietan, argitalpenetan, erakusketetan edo entitate baimenduaren beste baliabideetan.

Hori guztia 1982/1 Lege Organikoa beteaz, Ohorea, Intimitate Pertsonala eta Familiarena eta Norbere irudia babesteko Eskubidearen Babes Zibilekoa, Datu Pertsonalen Babesaren inguruko araudiak zehazten duenarekin lotuta, baimena ematen du emandako datu pertsonalak Ekingune Ekintzaileen Elkartearen erantzukizuneko irudiak izeneko fitxategian, zeinaren egoitza soziala Azitain industrialdea 3 K, 2. solairua Eibargunea, 20600 Eibar (Gipuzkoa) den. Helburua hainbat komunikabideetan argitaratzen diren irudiak kontrolatu eta kudeatzea da.

Datu horiek, argitaratzeko baimena dutenean, argitaratzen diren komunikabideetan sartzen den guztiaren esku egongo dira eta helburu historikoekin denbora zehaztugabea gordeko dira.

Edozein kasutan ere, interesdunak emandako baimena atzera bota edo ukatu egin ahal izango du, eta datuak atzitze, zuzentze edo ezerezteko eskubidea erabili ahal izango du, eta baita haren tratamendua mugatu edo tratamenduaren aurka egin, eta datuak eramateko eskubidea ere. Horiek eskatzeko, idatziz adierazi behar da Azitain industrialdea 3 K, 2. solairua Eibargunea, 20600 Eibar (Gipuzkoa) helbidea, edo posta elektronikoz ekingune@ekingune.com helbidera.

11.- EKITALDIA BERTAN BEHERA UZTEA

Ekingunek ekitaldia ospatzeko aurreikusita dagoen data aldatu edo bertan behera uzteko eskubidea du. Kasu horretan, eta data berrian ekitaldira joaterik ez duten parte-hartzaileei haietatik une horretara arte jasotako zenbatekoa itzultzea eskainiko du.

Ekitaldiaren antolatzaileen erruarengatik ez den bestelako arrazoiren batengatik ekitaldira joaten ez bada, ez da izen-emate kuotarik itzuliko.

12.- INTERPRETAZIOA

“**On Ekin**” ekitaldiari oinarri hauen aplikazioaren edo interpretazioaren inguruan zalantzarik edo desadostasunik egonez gero, **Ekingunek** du azken hitza, zeinak gatazkak konpontzeko ahalmena duen, eta baita jarrera edo prozedura arauak zehazteko eta **Ekinguneren** ekitaldi bakoitzaren barruan parte-hartzaileen jarrerak ezartzekoa ere. Zentzu horretan, ebatzitako guztia loteslea eta behin betikoa izango da parte-hartzaileentzat. Ezingo da ebazpena aurkaratu edo haren aurka helegiterik jarri.

Alderdiek adosten dute kontratu honetan bildutako arauen negoziazioan, interpretazioan, betetzean sor daitezkeen zalantzak edo gatazkak Eibarko hiriko Auzitegi eta Epaitegietan ebatziko da, eta kasu guztietan, parte-hartzaileak haren helbidearen arabera dagokion auzitegi eskudunari uko egingo dio.